

# ESKUALDEKO BILERETARAKO INFORMAZIOA / 2013ko maiatza

## 1.- LOMCEri buruzko informazioa

LOMCE legeari behin betiko onespina emateko gauzatu beharreko aldeez aurreko izapideak aurrera doaz. Otsailaren 19an igorri zitzaion lege aurreproiektua Estatu Kontseiluari, hark irizpena eman zezan; kontsulta izaerako irizpena dela nabarmendu beharra dago, halere. Handik bi hilabetera, apirilaren 19an, Estatu Kontseiluak irizpena onartu zuen; irizpenaren edukiak, oro har, lege proposamenaren oinarritzko ardatzak berretsi zituen (kanpo ebaluazioak, DBHko ibilbide bereziak aurreratzea, Lanbide Heziketaren diseinu berria...). Nolanahi ere, irizpenak zalantzan jartzen ditu lege aurreproiektuan bildutako proposamen batzuk: herritartasunerako hezkuntzako irakasgai bati eustea eskatzen du; zalantzan jartzen du ikasleak sexuen arabera bereizten dituzten ikastetxeek diru laguntza publikoak jaso ahal izatea; kritikatu egiten du hezkuntza komunitate guztiak ikastetxeen kudeaketan partaidetza mugatua izatea; balioespen ekonomikorik ezaz ohartarazten du, etab.

Estatu Kontseiluaren irizpena ikusirik, gobernuak erantzun du irizpenak bere hezkuntza erreformari babeska ematen diola eta aurreproiektuan Estatu Kontseiluak egindako proposamenak jasotzen ahaleginduko dela. Hala, lege proiektua onartzeko izapideak egiten jarraituko dute; Maiatzaren 17an Espainiako Ministro Kontseiluan LOMCE lege proiektua onartu zen eta Espainiako Kongresu eta Senatura bidali dute, eztabaida egin eta onar dezan eskatuz. Itxuraz, agerikoa da Espainiako gobernuak LOMCE legea onartzeko borondate irmoa duela; honen froga da Ministro Kontseiluan onartutako lege proiektuan aplikatzeko egutegia murriztu egin dutelako (14 hilabetetik 9ra). Honen ondorioz, Espainiako Kongresua eta Senatura lege proiektua azaroa bukaera baino lehenago onartzen badute, hasierako aplikazioa 2014ko irailean izango da, eta horrela hurrengo bi ikasturtetan, 2014-2015 eta 2015-2016, lege osoa martxan egongo da.

"Euskal Eskola Publikoa HARATAGO" foroa osatzen dugun elkarteek (BIHE, EHIGE eta SAREAN) jarraipena eman diogu hezkuntza komunitatean lege berria ezartzeak ekarriko dituen ondorioei buruzko informazioa emateko eta kontzientziarioa sustatzeko kanpainari. Gipuzkoan, maiatzaren 10erako, 16 hitzaldi eman dira, eta maiatzaren amaierara bitartean beste 4 emateko aurreikuspena dago.

Otsailaren 19an, "LOMCE EZ, GURE HEZKUNTZA BAI" manifestua aurkeztu zen, Bilbon, honako erakunde hauen babesarekin: EHIGE, BIHE, SAREAN, IKASTOLEN ELKARTEA, ERKIDE IRAKASKUNTZA, SORTZEN-IKASBATUAZ, KRISTAU ESKOLA, BIDELAGUN, IKASLE ABERTZALEAK, HETEL, IKASLAN, CCOO, FETE-UGT, HETEL, EIB, ELIZ BARRUTIKO IKASTETXEAK, IKASGILTZA, KONTSEILUA, HIK HASI. Euskal gehiengo sindikala osatzen duten sindikatuak baino ez ziren gelditu kanpoan (ELA, LAB eta STEE-EILAS); sindikatu horiek diotenez, bat datoz manifestuaren testuarekin, baina ez zuten agiria sinatu beren ustez LOMCEn kontrako jarrera aditzera emateaz gainera hezkuntzako murrizketen salaketa ere egin behar zelako. Martxoan eta apirilean atxikimenduak biltzeko kanpaina egin da ikastetxe guztietan, Eskola Kontseiluei eta IGEei laguntza eskatuz. Gipuzkoan, 104 atxikimendu bildu ditugu (53 Guraso Elkarteak eta 51 Eskola Kontseiluenak).

Manifestua argitaratuz eta atxikimenduak bilduz, Eusko Jaurlaritzari eta Madrilgo gobernuari, baita gizarteari oro har ere, aditzera eman nahi zaie euskal hezkuntza komunitatearen gehiengoak LOMCEn kontra eta hezkuntza sistema propioaren alde dagoela.

Edonola ere, euskal hezkuntza komunitatearen erabateko arbuioak ez du pareko babesik izan estatuan, oro har; izan ere, eskola publikoa besterik ez da mobilizatzen ari LOMCEn aurka. Ildo horretatik, apirilaren 26tik maiatzaren 11ra, "Plataforma Estatal por la Escuela Pública" plataformak (irakasle eta ikasleen sindikatuak, IGEen Konfederazioa, Berritze Pedagogikoko Mugimenduak, etab. biltzen ditu) mobilizazio egutegi bat antolatu du. Mobilizazio horien artean, bereziki nabarmentzekoa da **hezkuntza arlorako greba orokorra**, maiatzaren 9rako, hezkuntza komunitateko sektore guztiek deituko dutena (ikasleek, gurasoek eta irakasleek), hezkuntzako etapa guztietan, Haur Hezkuntzatik helduen hezkuntzara eta unibertsitatera, bai erregimen orokorreko irakaskuntzetan nahiz berezietan.

Euskadin, deialdi horiek ez dute oihartzunik, beste behin ere, sindikatuen artean akordiorik ez dagoelako ekimen bateratua bideratzeko, euskal sindikalgintzaren gehiengoak babesik ematen ez dielako; hori dela eta, EHIGEk ez zuen grebarako berariazko deialdirik egin. Hala ere, mobilizazio horiekin bat eginez, maiatzaren 9an ikastetxe guztietan LOMCEn eta murrizketen kontrako pankartak ezartzeko deialdia egin zen.

- **LOMCERI buruz informazio gehiago:** [www.ehige.org/lomce](http://www.ehige.org/lomce)

## **2.- Eusko Jaurlaritzaren 2013rako aurrekontua: 2012ko jardunaldiaren aurrekontuaren luzapena eta horrek Hezkuntza Sailaren diru partidetan izango duen eragina.**

Martxoaren 12an, Eusko Jaurlaritzak 2013rako Aurrekontu Orokorren proposamena helarazi zion Eusko Legebiltzarrari. Proposamen horretan, lehen datu aipagarria aurrekontuaren osoko zenbatekoa da: 9.316 milioi €, hau da, 2012ko aurrekontuarena baino 1.132 milioi € txikiagoa (%10,8 txikiagoa).

Martxoaren 25ean, Hezkuntza, Kultura eta Hizkuntz Politikako sailburu Cristina Uriartek bere sailaren aurrekontu proposamena aurkeztu zion Eusko Legebiltzarreko Ogasun Batzordeari. Proposamenean agertzen den osoko gastua 2.630 milioi €-koa da; alegia, 2012koa baino 295 milioi € txikiagoa (%10,1).

Baina Eusko Legebiltzarreko alderdi politikoen arteko batasunik ezaren ondorioz, Eusko Jaurlaritzak proposamena atzera bota zuen apirilaren 25ean, eta uko egin zion 2013rako aurrekontu propioak onartzeari. Beraz, datozen hilabeteetan aldaketarik aurreikusten ez denez, 2013ko ekitaldian 2012an onartutako partida eta kontuetan oinarrituriko kudeaketa gauzatuko da. Baina, praktikan, zer esan nahi du aurrekontuak luzatzeak? Askok besterik pentsa dezaketen arren, EZ du esan nahi Eusko Jaurlaritzak 2012ko zenbateko berak gastatuko dituenik; hala balitz, diru laguntzei eta gastuei eutsiko lieke, besteak beste. Baina ez du hori esan nahi, zehazki; esan nahi du 2012ko gastu eta diru laguntzen partiden zenbatekoak direla gobernuak gehienez gastatu ditzakeenak, baina ez dagoela hori gastatzera behartuta, inola ere, eta, beraz, 2012ko aurrekontuan partida bakoitzean adierazitakoa baino zenbateko txikiagoa gasta dezakeela. Eta, ildo horretatik, argi eta garbi mintzatu da Eusko Jaurlaritza: gastuaren zenbatekoa 2013ko aurrekontu erretiratuan adierazitakoa izango da, halako eran, non, praktikan, aurreikusitako gastuak eta diru laguntzak ez baitira izango 2012koak, baizik eta 2013rako zirriborrokoak. Azken batean, Hezkuntza Sailaren aurrekontua oro har %10,8 txikiagoa izango da 2013ko ekitaldian.

Labur adierazita, hauek izango dira 2013ko zirriborroak 2012koarekin alderatuta zituen aldaketa nagusiak, Eusko Jaurlaritzak iritzia aldatu ezean aurten ezarriko direnak:

### **Langile gastuak:**

\*Sailaren beraren langile gastuak: 1.185.606.232 (2012an baino %3,1 gutxiago)

\*Sailarekin loturiko beste erakunde batzuetako langile gastuak (hezkuntza itunen baitan ordezkaturako ordainketa, ikastetxe pribatuei, UPV-EHUri, euskaltegi publikoei, Haurreskolei eta EITBri): 898.740.071 (2012an baino %0,6 gutxiago).

2013rako langile gastuen osoko zenbatekoa 2.084.346.303 eurokoa izango da, hau da, 2012an baino %2,1 txikiagoa.

Sailburuak agerraldian adierazi zuenez, langile gastuak hartzen du bere Sailaren gastu osoaren %79,2, eta eutsi egingo die ikasleen ratioei, diru laguntzen politikari, irakasleen soldatei eta eskola orduei buruzko akordio guztiei. Konpromiso horrek baldintzatu egiten du gainerako gastua, aurrekontutik erabilgarri geldituko den %20,8a.

### **Gastuen aurrekontua 17 jarduera programatan banatuko da. Hauek dira gure ustez aipagarrienak:**

- Haur eta Lehen Hezkuntza: 871,9 milioi € (2012an baino %5,7 gutxiago)
- Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa: 887,5 milioi € ( 2012an baino %6,3 gutxiago)
- Unibertsitate Irakaskuntza: 301,7 milioi € (2012an baino %13 gutxiago)
- Hezkuntza Sustapena: 119 milioi € (2012an baino %31 gutxiago)

### **Aurrekontuetako partiden xehetasunak:**

- \* Itunpeko ikastetxeak finantzatzeko moduluak errespetatu dira (osoko zenbatekoari begiratuta, %1eko jaitsiera izango da)
- \* Sailburuak dioenez, arreta berezia eman nahi zaio Heziketa Bereziari (zeinu hizkuntza, fisioterapeia, psikopedagogia, ikusmen ezintasuna duten ikasleak); hortaz, eutsi egingo zaio esparru horren finantzaketari, eta, berrikuntza gisa, haur gor-itsuen laguntza sustatuko da.
- \* Garraio eta eskola jangeletarako zenbatekoei eutsi egingo zaie, baita beka orokorren zenbatekoei ere.
- \* Liburu mailegua: Lehen Hezkuntzako 1. zikloko eskola material berritzeko partidari soilik eutsiko zaio (2,8 milioi). Gainerako zikloetan ez da berrituko; horrek esan nahi du 2. zikloko ikasleak 6. ikasturtez arituko direla mailegatutako liburuekin eta 3. ziklokoak 5. ikasturtez.
- \* Beka eta laguntza batzuk desagertuko dira: espediente bikaina, atzerrian hizkuntzak ikasteko laguntzak...
- \* %10 murriztuko da Haurreskolak partzuegoaren finantzaketa, baina ez du eraginik izango familien kuotetan. Era berean, haurreskola pribatuentzako laguntzak ere murriztuko dira.
- \* Ikastetxe publikoen funtzionamenduko eta ekipamendu gastuen partida 22 milioi euro murriztuko da (%39). Ikastetxeetako zuzendaritzei zirkular bat igorri zaie, dagoeneko, jakinarazteko funtzionamendu gastuei dagozkien zenbateko ekonomikoak banatzeko garaian kontuan hartuko direla ikastetxeek abenduaren 31n kontuetan zituzten zenbatekoak; hala, ikastetxe batek data horretan soberakin saldo positiboa bazuen, 2013an jasotzea legokiokeen zenbatekotik kenduko zaio zenbateko positibo hori. Neurri hori dela eta, haserre bizian daude ikastetxeetako zuzendaritzak, eta premia bilera egin dute Hezkuntza Sailarekin. Bilera horretan, EHIGE, BIHE eta SAREAN elkarteetako ordezkariak neurria berehala bertan behera uztea eskatu zuten, baita beste neurri batzuk deuseztatzea ere, ikastetxeen finantza autonomiaren kontrako murrizketak direla eta. Hezkuntza Sailak erabaki hori atzera ez botatzekotan, Ikastetxeetako zuzendaritzetan dimisioak gerta litezkeela ere adierazi dute.

*Oposizioaren galdera (PSE eta EH Bildu): ikastetxeetako funtzionamendu gastuen eta obren zenbatekoak murrizten badira, zergatik ez dago murrizketarik hezkuntza ituneko moduluan?*

- \* Obrak: dagoeneko hasitako obrak amaitzeko konpromisoa baina %24,eko murrizketa ikastetxe berrien eraikuntzan. Obra plan berri bat lantzeko asmoa dute.
- \* Ez dira ordenagailu gehiago erosiko DBHrako, baina arbel digitalen ekipamendua osatuko da. DBHn ordenagailuak partekatzeke proposamena.
- \* IKTetatik IETetara: aurreko urteetan IKTak lantzeko ekipamendu informatikoak banatu dira, eta, aurrerantzean, Ikaskuntza eta Ezagutzarako Teknologien (IET) erabilera sustatu nahi da. Eutsi egingo zaio eskuratzeko gelditzen diren arbel digitaletarako partidari, baina programa "berbideratu" egin nahi dute, modu "eraginkorragoan" kudeatzeko. Adibidez, Sailak proposatzen du DBHko 1. zikloko ikasleek 2. zikloko ikasleekin partekatzea ordenagailuak.

\*PROA programari eutsiko zaio, baina aurrekontua murriztuta:

Bigarren Hezkuntza: 583.000tik 458.000ra / Lehen Hezkuntza: 580.000tik 483.000ra

### **IGE ETA FEDERAZIOENTZAKO diru laguntzak:**

- \* IGEak: osoko zenbatekoa 702.000 eurotik 500.000ra jaitsiko da (2012an baino %29 txikiagoa izango da laguntza)
- \* FEDERAZIOAK: osoko zenbatekoa 522.000tik 350.000ra jaitsiko da (2012an baino %33 txikiagoa izango da laguntza)

Azkenik, aipatzekoa da Donostiako zenbait IGEren ekimenez kanpaina bat egin zela urtarrilean eta otsailean, Gipuzkoako IGEen artean atxikimenduak biltzeko, Hezkuntza Sailarekin bilera bat egiteko,

eta bilera horretan hezkuntza saileko murrizketen kontrako jarrera adierazteko eta IGEek igorritako zenbait galdera egiteko. Azkenik, 34 IGEk eman zioten atxikimendua eskariari, eta martxoaren 11n egin zuten bilera Lakuan. Bilera horretan parte hartu zuten IGEetako 3 ordezkariak eta, Hezkuntza Sailaren izenean, Ikastetxeen zuzendariak eta Langileen zuzendariak, eta honako gai hauek aztertu zituzten: eskola inklusiboa, ikaskuntza baldintzak, ratioak, irakasleen eskola orduak, epe kanpoko matrikulazioa, gehiegizko ratioen salaketa, hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak, irakasleen erretiroa, ordezkapenak, nazioarteko testen kostua, eskola jangelen kalitatea, LOMCE... Ekimena sustatu zuten IGEek Hezkuntza Sailari jakinarazi zioten ekimen puntuala zela, familiei balizko murrizketek eragindako kezkaren ondoriozko gauzatua, eta, orain arte bezala, beren ordezkariak BAIKARAREN bitartez bideratzen jarraituko zutela.

### **3.- Euskal Eskola Publikoaren Jaia.**

Ekainean, euskal eskola publikoaren arloko hiru jaialdi antolatuko dira hurrenez hurreneko hiru asteburutako igandeetan:-

- Euskal Eskola Publikoaren Jaia, MURGIAN (Araba), ekainaren 2an. Aurtengo leloa "HAZIAK INDARTU" da.
- ESKOLA TXIKIEN JAIA, OLABERRIAN, ekainaren 9an, "ESKOLA TXIKIAK BIZIRIK" ohiko leloarekin
- Iparraldeko eskola publikoan hezkuntza elebiduna ezarri zeneko 30. urteurrenaren ospakizuna. Jaialdia SARAN izango da (Lapurdi), ekainaren 16an.

### **4.- Intereseko beste gai batzuk**

#### **4.1 IGEen Jardunbide Egokien III. Lehiaketa**

Apirilaren 26an amaitu zen EHIGEk antolatutako IGEen Jardunbide Egokien III. Lehiaketarako esperientziak eta proiektuak aurkezteko epea. Guztira 42 esperientzia aurkeztu dira, horietatik 18 (%43), Gipuzkoako IGEenak.

#### **4.2 2013-2014 ikasturteko eskola egutegia**

2013-2014 ikasturterako eskola egutegia prestatzeko jarraibideak argitara eman dituzte. Ikastetxeetako eskola kontseiluek maiatzean zehar onartu behar dituzte egutegiak, eta horren berri eman Hezkuntza Sailari, ekainaren 1a baino lehen.

- Haur eta Lehen Hezkuntza: ez dago ikasturte honekiko aldaketarik. Zuzeneko irakaskuntzako 875 ordu eta 175 egun izango dituzte ikasleek, gutxienez, eta ekainean eta irailean arratsaldeko eskolak bertan behera utzi ahal izango dira.

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH): ez dago aldaketarik, 1.050 eskola ordu eta 175 eskola egun izango dira.

- Batxilergoa: ikasturteak 175 eskola egun izango ditu, gutxienez; eta horietatik 160, gutxienez, eskola orduetarako izango dira. 160 egun horietan, ezingo dira eskolak bertan behera utzi azterketetarako, ebaluazio batzarretarako, klaustroetarako... Astean 33 eskola ordu emango dira, eta ikasturte honekiko aldaketa izango da 2013-2014 ikasturtean Erljioaren ordezkari irakasgaia nahitaezkoa izango dela; ikasturte honetan, Erljioak ez zeukan ordezkari, eta Erljioa aukeratzen ez zuten ikasleek asteko 32 eskola ordu zituzten. Euskadiko Auzitegi Gorenak emandako epai bat dela eta egin da aldaketa hori, eta 2 milioi euroko gastu gehigarria ekarriko dio Hezkuntza Sailari. 2009-10 ikasturtean, 352 ikasle aukeratu zuten Erljioa eskola publikoan, ikasle guztien %2,7k. EHIGEk dagoeneko jendaurrean adierazi du ez datorrela bat Hezkuntza Sailaren erabaki horrekin.